

2015ean DERRIGORREZKO ESKAKIZUNA: BITARTEKO LANGILEEK LANPOSTUAK UZTEA

JAZek beste sindikaturen baten bati emandako informazioaren arabera, 2015ean derrigorrezko hizkuntza-betekizuna duten lanpostuetan egonik eskakizuna egiaztatuta ez duten bitarteko langileek plaza utzi beharko dute azaroaren 13an, errefortzu moduan geratzeko inolako aukerarik gabe.

Aspaldi du LABek eskatu ziola administrazioari langile horiek uzteko betetzen zuten lanpostuetan, hizkuntza dela eta berariazko lehiaketa ebatzi arte. Justizia Sailak ondorioztatu zuen, LPZaren aldaketa argitaraturik, ilegala zela langile horiek hizkuntza betekizuna duten plazetan jarraitzea, arauak exijitzen baitu betekizunei erreparatzea, euskara izan, titulazioa izan... betekizuna. Hori dela-eta posibilitate bakarra zegoen: berariazko lehiaketa ebatzi artean esandako langileek errefortzu gisa jarraitzea. Jakina, irtenbide hori nahiago izanez gero eta ez lan-poltsetara zuzenean joatea; hortaz, bata ala beste aukeratzea izango zuten.

Hala eta guztiz ere, gainerako sindikatuek ohartarazi zioten JAZi kontratu horien aurka helegitea aurkeztuko zutela, lanpostu hutsak errefortzuekin hornitzea ilegala omen da eta. Egun hartan zuzendaritzak esan zuen kontua aztertu behar zuela; legez kontraktotzat jo zitekeen ezer egotekotan, bestela joko zutela.

Eztabaidaezina azaroaren 13ko lanpostu uztea da: eskakizuna egiaztaturik ez duena ezin izango da geratu hizkuntza-betekizuna duen lanpostu hutsean. Beste sindikatuek zuten irizpidea bere egin du sailak eta baita aplikatuko ere, antza. Dena den, administrazioak orain arte ez dio inolako arazorik topatu mota horretako kontratuak egoteari.

LABen proposamena (errefortzu moduan uztea langileak) ez zen inolaz ere ideala; bai ordea baliozkoa aldi baterako eta bi arrazoi direla-eta: bat, atzeratzea bi hilabete eta erdi lan-poltsetara itzultzea (hori baita berariazko lehiaketa ebatzeko beharrezko denbora tartea); eta bi, saihestea betekizuna duten plaza horietarako kontratatu behar zituzten bitarteko langileak bi hilabete eta erdi bakarrik lanean egotea. Hau da, itxaronaldi horrek bermatuko zuen honako hau: lehiaketan esleitu gabeko lanpostuak huts bilakatzea eta horren ondorioz enpleguan egonkortasun handiagoa lortzea.

Edonola ere, LPZaren aldaketa eta lekualdatze-lehiaketa arruntaren ondoriozko lanpostu uzteak egun berean, azaroak 13, ateraraztea eta gero LABen gomendioa zen zesatu eta errefortzuari uko egitea. Azalpena erraza da: kontratatua izateko aukera handiagoa da lekualdatze-lehiaketa arruntaren ondorioz berariazkoaren ondorioz baino. Hala ere, JAZek nork bere interesaren arabera aukeratzea ahalbitu behar zuelakoan gaude. Sarri askan zortea non topatuko ez dakigunez, baliteke suertatzea berariazko lekualdatze-lehiaketaren ondorioz hizkuntza-betekizuna ez duen lanpostua.

Zortea esan dugu lan-poltsek duten funtzionamendua ezagututa: zortearen menpeago daude langileak, askotan, zerrendan leku onean egotearen pean baino. Bada garaia zortek inolako eragina izango ez duen bitarteko langileen inguruko araua izateko.

Horiek horrela, agerikoa da Justizia Sailak ez duela nahi izan arriskurik hartu ahalezko salaketa baten aitzakian, horrela bakarrik ulertzen da LABen proposamena arbuizatzea.